

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Donaixti-Ibarre

Aurkibidea

Udalerria: Donaixti-Ibarre

Sarrera



Donaixti-Ibarre Nafarroa Behereko udalerria da, eta Oztibarre eskualdean dago. Biduze ibaiak udalerria gurutzatzen du, bere beste ibaiadar batzuekin batera. Herri hauek ditu mugakide: iparraldetik, Bunuze eta Jutsi; mendebaldetik Hozta eta Ibarrola; ipar-ekialdetik, Pagola; ekialdetik, Muskildi (Zuberoa); eta, hego-ekialdetik Altzürükü (Zuberoa). 1841ean elkartu ziren Donaixti eta Ibarre herriak. Laborantza da ekonomiaren oinarria.

- **Biztanleak:** 238
- **Euskaldunak:** %62,13

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **15**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Maddia Arrabit (1929)



Maddi Arrabit, sortzez Bidondo, Donaixti Gibeletxean sortua da. Aita eta ama Donaixtikoak (Gibeletxe eta Gaxteteiakoak hurrenez hurren) eta laborariak zituen. Etxaldearen segida berak zuen hartu. Haatik, tipitik jusketa lana maite izan du. Horrela, “*zertifikata*” ukan zuen eta dendari izateko ikasketak burutu zituen. Hiru ahizpetan gazteena da Maddia. Zaharrena bertze aita batena izanagatik, Madiaren aitak berea balu bezala hartu zuen beti. Ahizpa hurbilena hamabi urterekin meningitisak joa galdu zuen. Frantxoa Arrabit Irisartar musikariarekin ezkondu, eta bi seme ukan zituzten; bietarik bat musikaria ere bada. Bertzeak bertze behi uztartzeari zein sexualitateari buruz elekatu da.

Aña Dalle (1927)

Donaixtin sortua 1927an. Bertan bizi izan da ezkondu ondoren ere; senarra Auverniakoak. Lau seme-alaba izan zituzten. Ostatuan lan egina da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Pariseko bizia (DOI-003/004)

Gizona armadan zen eta hori dela eta asko bidaiatu. Parisen bizi izan dira bi urtez, eta han ezkondu zen.

2. Familiko kontuak (DOI-003/005)

Hiru ahizpa ziren, beste biak bikiak. Ahizpetako baten senarraren anaia ezagutu zuen haien ezteietan eta eurak ere ezkondu egin ziren. Lau seme-alaba izan ditu.

3. Algeriako bizia (DOI-003/006)

Senarraren lana zela eta Algerian ere bizi izan zen. Oso gaizki pasatu zuen, ez baitzituen batere maite hango jendea. Ez zen ia etxetik ere ateratzen. Gerra zegoen eta arriskutsua zen. Sobera inozentea izan zela uste du.

4. Etxeko esplotazioa eta bizibidea (DOI-003/008)

Asto txiki bat eta zerritegia baino ez zituzten, baratzea ere bazuten. Gizona armadan baitzegoen, handik ateratzen zuten hilabete-saria.

5. Hiru hiri handien erdian Donaixti (DOI-003/010)

Maule, Donibane-Garazi eta Donapauetik ber distantziara daude. Donapaulera joaten ziren gehienik merkatura eta.

6. San Antoni eta San Mixel (DOI-003/011)

Hiru erromesaldi egiten dira urtean San Antoni baselizara. Jende andana bat joaten da herritik, baina herritarrek maiteago dute herriko San Mixel Garikoitz.

7. San Mixel Garikoitz eskola (DOI-003/012)

Etxe aurrean zegoen, eta alde guztietatik etortzen ziren gazteak bertan ikastera. Gaur egun hutsik dago.

8. Haur kopurua (DOI-003/013)

Haur gutxiago daude lehen baino. Denbora batean bospasei haur edukitzen zituen jendeak. Gogorra zen, baina ez zegoen besterik.

9. Biduze erreka iturburua (DOI-003/015)

Biduze erreka iturburua Donaixtin bertan dago. Igaldetan joaten zen haurrekin promenatzera.

10. Herriko dendak eta ostatuak (tabernak) (DOI-003/016)

Lehenago hiru denda baziren gutxienez Donaixtin. laupabost ostatu ere baziren. Gaur egun bi baino ez daude. Besta txikiak egiten zituzten.

11. Herriko dantzaldiak (DOI-003/018)

Izugarri gustatzen zitzaion dantzatzea. Fandangoak eta balsak dantzatzen ziren este batzuen artean. Apaizak dantzen aurkakoak ziren, baina ez zitzaion asko axola. Neskak hasten ziren eta gero mutikoak etortzen ziren. Herriko plazan aritzen ziren. Aitak ostatua zuen eta apaizen aurkako baitzen dantzan aritzera bultzatzen zituen gazteak. Goizik sartu behar izaten ziren etxera, batez ere neskek.

12. Gizon-emazteen arteko berdintasun eza (DOI-003/019)

Mutilek zernahi egiteko eskubidea dute, neskek ez. Bera beti etxe barnean aritu izan da lanean.

13. Lurdan zerbitzari eta josten ikasten Donaixtin (DOI-003/020)

18 urtetik 25 urtera bitartean ibili zen. Lau hilabetez aritzen zen sasoiarendako. Beilari ugari joaten zen orduan. Josten ikastera ere joaten zen dendarien etxeetara.

14. Elizako kontuak (DOI-003/021)

Amabrijinarik ez dute, santuak bai ordea. Lehenago gehiago konfesatzen ziren bana ez zuten dena erraten. Zernahi galdegiten zuten apaizek. Errosarioa errezatzen bidaltzen zituen amak bina batzutan ez ziren joaten. Herri bakoitzean apaiz bat bazen, orain bakarra zazpi-zortzi herrirentzat. Meza euskaraz zen eta da.

15. Euskararen transmisioa herrian (DOI-003/023)

Denak euskaraz ari dira herrian bere ustez. Bere seme-alabek gehienek euskaraz ulertzen dute baina ez dute hainbeste hitz egiten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com